

## ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (EAE)

50. astea (2022/12/12-2022/12/18)

2022-2023 denboraldia


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 630,54 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (404,52/100.000 aurreko astean).
- Laborategira bidalitako 105 lagin jagoleen % 67,6 baieztatu da, 15 SARS-Cov-2, 14 ABS eta 12 gripe-birus antzeman direlarik. 12 errinobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 20,97 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (22,02/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari gripe-birusaren detekzio kopuruak gora egiten jarraitzen du; ABSren detekzio kopuruak aldiz, behera egin du.

### AIAREN JAGOLETZA LEHEN MAILAKO ARRETAN

#### Zaintza sindromikoa


Lehen Mailako Arreta-sarean hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 630,54 kasukoa izan da (404,52/100.000 aurreko astean). Tasak gora egin du bi jai egun zituen aurreko astearekin alderatuta, baina baita duela bi asteo tasarekin alderatuta ere. Lurralde historikoki, tasa 586,94/100.000 izan da Araban, 618,12/100.000 Bizkaian eta 670,34/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN INTZIDENTZIA-TASA LURRALDE HISTORIKOAREN ETA ASTE EPIDEMIOLOGIKOAREN ARABERA. LEHEN MAILAKO ARRETA-SAREA. 2022-2023, EAE



Adin-taldearen arabera, AIA tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da, 2568,58 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 701,03 kasurekin. Bi jai egun zituen aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan, baina duela bi aste tasekin alderatuz gero, tasek gora egin dute 14 urtetik gorakoetan eta behera 15 urtetik beherakoetan.

**AIAren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera  
Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ere ESI guztietan. Tasa handiena Arabar Errioxa ESIan eman da, eta txikiena berriz, Bidasoakoan.


**AIAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoa ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**

ESI	Tasa 50. astea	Tasa 49. astea	Tasen arrazoa (% 95 KT)
Araba ESI	638,95	392,53	1,63 (1,51-1,75)
Arabar Errioxa ESI	1051,55	709,58	1,48 (1,12-1,95)
Barakaldo-Sestao ESI	519,80	355,82	1,46 (1,30-1,65)
ESI Barrualde-Galdakao ESI	635,56	443,34	1,43 (1,34-1,54)
OSI Bilbao-Basurto ESI	628,75	377,31	1,67 (1,56-1,78)
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESI	703,61	424,76	1,66 (1,51-1,82)
Uribe ESI	525,48	314,10	1,67 (1,52-1,84)
Bidasoa ESI	501,70	345,65	1,45 (1,24-1,69)
Debarrena ESI	799,66	428,24	1,87 (1,63-2,14)
Debagoiena ESI	539,47	363,28	1,48 (1,26-1,75)
Donostialdea ESI	576,27	354,41	1,63 (1,52-1,74)
Goierri-Urola Garaia ESI	910,98	684,28	1,33 (1,20-1,47)
Tolosaldea ESI	839,96	661,74	1,27 (1,12-1,44)

Gripe-sindromearen tasa 21,70 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (11,49/100.000 aurreko astean). Tasek gora egin dute hiru lurralde historikoetan eta duela bi asteko balioen gainetik kokatu dira.

Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 900,99 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (708,16/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasek ere gora egin dute hiru lurralde historikoetan, baina kasu honetan duela bi asteko balioen oso azpitik kokatu dira.


**Tasa lurralde historikoaren eta aste epidemiologikoaren arabera**  
**Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**



### Zaintza jagolea

Aste honetan, AIArako erreferentziako laborategian 105 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 67,6 baieztatu dira, 15 SARS-Cov-2, 14 ABS eta 12 gripe-birus antzeman direlarik. 14 errinobirus, 9 metaneumobirus, 8 adenobirus eta lagin berean bi birus identifikatutako 8 koinfektzio ere detektatu dira.

**AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua,**  
**aste epidemiologikoaren arabera. 2022-2023, EAE**



Gripe-birusaren positibotasuna lagin jagoleetan % 10etik gora kokatu da (% 11,4) lau astez atalase honen azpitik egon eta gero (% 9,1 duela bi aste). Aste honetan positibotasun altuena SARS-CoV-2arena izan da (% 14,3)% eta ABSren positibotasuna % 13,3ra jaitsi da (% 25,3 duela bi aste). Halaber, errinobiruserako ere % 10etik gorako positibotasuna (13,3%) erregistratu da.

**Positibotasunaren ehunekoa laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2022-2023, EAE**


	50. astea		49. astea		2022-2023 hasieratik	
	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	12	14,3	0	0,0	166	20,2
SARS-CoV-2	15	11,4	1	4,2	116	14,1
ABS	14	13,3	5	20,8	99	12,1
Metaneumobirus	9	8,6	2	8,3	40	4,9
Parainfluenza	1	1,0	0	0,0	34	4,1
Adenobirus	8	7,6	7	29,2	62	7,6
Errinobirus	14	13,3	1	4,2	118	14,4
Urtaroko CoV	5	4,8	1	4,2	30	3,7

**AIA larriaren (AIAL) jagoletza Osakidetzako ospitale-sarean**

**Zaintza sindromikoa**


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak AIA diagnostiko-kodea duten eta ospitaleratzea behar duten kasuak dira. AIAL tasa Osakidetzako ospitale-sarean 20,97 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (22,02/100.000 aurreko astean), 21,08/100.000 emakumeetan eta 20,86/100.000 gizonetan.

**AIAL tasa sexuaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2022-2023, EAE**



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da, 64,24 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 61,70 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek pixka bat gora egin dute 44 urtetik gorakoen adin-taldeetan eta behera 45 urtetik beherakoetan, bereziki 15 urtetik beherakoetan.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera Osakidetzako ospitale-sarea. 2022-2023, EAE**




## Zaintza biologiko ez jagolea

EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemaren gripe-birusaren detekzio kopuruak gora egin du berriro aste honetan eta, 10 astez gora egin ondoren, ABSren detekzioek behera egin dute.

Aste honetan detektatutako 193 gripe-birusetatik, 127 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 63 A(H3), 2 A(H1)pdm09 eta B motako bat. 2022/40 astetik 2196 detekzio erregistratu dira, 2178 (% 99,2) A motakoak eta 18 (% 0,8) B motakoak. Azpitipatutako A motako 659 birusetatik, 634 (% 96,2) A(H3) eta 25 (% 3,8) A(H1)pdm09 izan dira.

**Asteko Influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2022-2023, EAE**




## COVID-19aren zaintza espezifikoa

60 urte edo gehiagoko populazioan, 50. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 146,85 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (116,63/100.000 aurreko astean), 145,62 gizonetan eta 147,82 emakumeetan (Iturria: ABG).

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, txosten honen egunean, SARS-CoV-2aren aldaeratarako PCR proba espezifikokoak lagin positiboan % 25ari egin zaizkie. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, eta horietatik % 90 BQ.1 azpialdaerakoak, % 6 BA.5 eta beste % 4a BA.2.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera (OBIEE), 50. astean SARS-CoV-2rako IAPD positiboa zuten 290 paziente ospitaleratu ziren EAEn (255 aurreko astean), 137 emakume eta 153 gizon. Ospitaleratutako pertsonen % 75 60 urtetik gorakoa zen.



OBIEEtik ateratako datuen arabera, 50. astean COVID-19aren 75 kasu berri erregistratu dira EAeko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (aurreko astean 48 kasu). Igoera hau, hein handi batean Bizkaian emandako kasuek eragin dute. Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 27 izan da (aurreko astean 25).

AIAREN aktibitatearen inguruko informazioa zehatzagoa ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2022ko abenduaren 21ean

**Zainketa Epidemiologikoa**  
**Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**